

**2008ko URRIAREN 27an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko urriaren 27an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Hirstorikoko udalerriek landa ingurune azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko diru laguntzen deialdia. Bideak.**
- 2. Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Hirstorikoko udalerriek landa ingurune azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko diru laguntzen deialdia. Ura.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

LANDAGIPUZKOA 32 PROGRAMAN SARTUTA DAUDEN GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK LANDA INGURUNEN AZPIEGITURETAN EGINDAKO INBERTSIOAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZEN 2008KO DEIALDIA

Ikusirik 2008ko irailaren 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko

udalerriek landa inguruneko azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia.

Ikusirik Landagipuzkoa 32 programan Larraulgo herria beste batzuen artean sartuta dagoela.

Ikusirik aipaturiko deialdiaren oinarria dela udalerrri hauek landa ingurunean bide berriak egiteko edo daudenak konpontzeko eta urez hornitzeko obretan inbertitzen dutena finantzatzeko.

Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela Beobide-Azpi baserrira, Udal hilerrira eta Mariagazpiko haztegiara doazen bideen egokitzapen eta zolaketa proiektuen lanak egitea.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Beobide-Azpi baserrira, Udal hilerrira eta Mariagazpiko haztegiara doazen bideen egokitzapen eta zolaketa proiektuen lanak egiteko, Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek landa inguruneko azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia jarraituz diru laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Larraulgo Beobide-Azpi baserrira, Udal hilerrira eta Mariagazpiko haztegiara doazen bideen egokitzapen eta zolaketa proiektuen lanak egiteko aurrekontua 106.086 eurotakoa da. Eskatzen den diru laguntza 84.868,8 euro dira, diru laguntza hau %80 a suposatzen duelarik jardueraren kostu osoarekiko.

BIGARRENGO PUNTUA

LANDAGIPUZKOA 32 PROGRAMAN SARTUTA DAUDEN GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK LANDA INGURUNEKO AZPIEGITURETAN EGINDAKO INBERTSIOAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZEN 2008KO DEIALDIA

Ikusirik 2008ko irailaren 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek landa inguruneko azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia.

Ikusirik Landagipuzkoa 32 programan Larraulgo herria beste batzuen artean sartuta dagoela.

Ikusirik aipaturiko deialdiaren oinarria dela udalerrri hauek landa ingurunean bide berriak egiteko edo daudenak konpontzeko eta urez hornitzeko obretan inbertitzen dutena finantzatzeko.

Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza lanak egitea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza lanak egiteko, Landagipuzkoa 32 programan sartuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrriek landa inguruneke azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko diru laguntzen 2008ko deialdia jarraituz diru laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza lanak egiteko aurrekontua 295.985,73 eurotakoa da.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA